



Kibubu, askatasuna amets zuen gorila. - Keinuk askotan hitzek baino emozio eta sentipen gehiago transmititu ditzaketela frogatu zuten larunbat arratsaldean "Kibubu" antzerkia ikustera joan ziren dozenaka herritarrek, tartean, haur askok. Kaiola batean girotutako antzerkia izan zen, barnean Kibubu gorila bizi zen, Coco eta Xebas pailazoan aginduei men eginez. Pailazoak euren zirko ikuskizunerako hainbat ariketa irakatsi nahi zizkieten gorila basatiari. Baina Kibubuk gainezka egin eta Xebas erasotu zuen, honek tratu txarrak ematen zizkiolako. Ez zegoen gorilaren indarra bortxaz gelditzerik. Bere onetik aterata zegoen gajoa, orru ozek eginez. Baina jakina da indarrak gelditu ezin izaten duena, askotan, musikak eta goxotasunak gelditu dezaketela. Bada, horixe egin zuen Cocok bere akordeoiari doinu goxoak ateraz. Dena den, zaintzailean maitasuna berreskuratu arren, preso jarraitzen zuen Kibubuk, kaiola hotzetik atera ezinda. Eta lotuta dagoenak aukera, eskubide edo amets askatzea duenez, kaiolako paretan zuloa eginda oihanera egin zuen ihes gorila handiak. Finean, hitzik gabeko eta keinu bidezko antzerki honen funtsa gizakiok eta animalioek batzen gaituena banantzen gaituena baino gehiago dela erakustea zen.

3 TOPAKETAK

Bakea eta bizikidetzaren inguruko hitzaldia

BAI plataformak antolatutako I. Topaketei hasiera eman zitzaizen asteazkenean. Hainbat herritar gerturatu zen Villa Mirentxura Imanol Lizarralde eskaini zuen hitzaldia entzute-ra. "Behetik eraikitako bizikidetz" mintzaldia aurkeztu zuen historialariak herritarren aurrean.

5 GIZARTEA

"Gure Esku Dago" taldearen aurkezpen ekitaldia ostiralean

"Gure esku dago" erabakitze-ko eskubidearen alde martxan dagoen dinamika da. Ostiralean egingo dute taldearen aurkezpen ofiziala Villa Mirentxun 19:00etan. Dinamika zer den azaldu eta datoen hilaibetan herrian burutuko dituzten ekintzen berri ere emango dute.



4 DANBORRADA

Danbor eta mail doinuak herriko ikastetxeetan

Lasarte-Oriako ikastetxeetan haur, gazte eta irakasleek ostiralean ospatu zuten Donostiako egun handia. Txuri-urdin koloreak izan ziren nagusi Landaberri eta Sasota-Zumaburu ikastetxeetan. Raimundo Sarriegiren doinuak, zein Lasarte-Oriako ereserkia edo Realarena ere jo zituzten.



**Olarrondo
Jaitezea**

Usurbil 20170 • Tel.: 943 360376
www.olarrondojaitezea.com

Etorri gu ezagutzera!

Ospakizunetarako menuak:

**Ezkontzak
Jaunartzeak
Bataioak
Taldeak
Enpresak**

- Jardinak
- Parkina
- Umeentzako parkea
- Terraza
- Dantza aretoa



Adituak dio



Jose Mari Otegi
Otegi Sagardotegia

Sagardotegi garaiasi da. Urtarrileko azken larunbatean zabalten ditugu normalean kupelak eta apirileko azkenekoan itxi. Azken urteetan sortzen diren ezkontzak edo bazkari edo afari bereziak direla eta gure ohiko data hauek luzatzea eragin du batzuetan.

Sagardo ohitura handia izan da gure inguru honetan nahiz eta egun Astigarraga eta Hernani diren sagardoaren hiriburu.

Gure etxean, urtea ez dakigu zehazki, baina sagardoa txarroka saltzen zutela entzun dugu beti. Baserria sagardotegi bezala zabaltea ordea, 1982an egin genuen ofizialki.

Urte guzti hauetan gauzak asko aldatu dira. Alkoholemia kontrolak zorrotz ziren neurrian, gure bezeroen bisitak aldatzen joan ziren eta egun autobusez etortzen direnak asko dira. Larunbata gauda izan ohi zen beti giro eta jende gehien biltzen zuena, baina lekua hartu dio larunbata eguerdiak. Jendeak egun osoko plana egin nahi du eta horrela lekua hartzeko orduko prezlatuena izatera pasa da.

Asten zehar bestelako giroa izaten da nagusi, lasaiagoa eta jende helduak batez ere nahiago duena. Ohiko bezeroak etortzen dira gure etxera goiz eta giro bikainean lagun artean bapote afaltzera.

Hala ere, ez da orain zabalten den sagardotegi denboraldia soilik edari hau dastatzeko garai bakarra. Egun urte osoan zehar dago denon eskura, gure kasuan 25.000 eta 28.000 botila artean merkaturatzea espero dugu. Sagardo polita da aurtengoa nahiz eta sagarrarentzat urte baxra izan den, gure inguru honetan.

Txotx!...

G abonak agurtuta, edaten eta jaten jarraitzeko aitzaki berria dugu aste honetatik aurrera, sagardotegi garaiasi da eta.

Nahiz eta gaur egun urte osoan zehar gure eskura izan sagardoa, oraindik prozesioan joaten gara sagardotegiaren, ohitura errotua balitz bezala.

Badiurdi ere mugatu batean zabalik egote horrek bere xama eta erakargarritasuna mantentzen laguntzen duela eta hala, lagun koadrila eta familia askotan sagardotegirako lehenengo data jarrita dago iada eta noski, lekua hartuta.

Hala ere, kupleetatik edatea nahiko ohitura berria dela esan daiteke. Sagardo basoa edota pitxarra saltzen zuten etxean kontsumitzeko, edota sagardotegian bertan. Jatetxe bezala hastera ere nahiko berria da. Izan ere, bilgune, elkar-

teak bezalakoak ziren, kupela artean mahai edota eserleku batzuk jarri eta bertara eramaten zuten norberak bere janaria. Sagardotegiko jabeak tarteka kupela irekitzen zuten zuten sagardo hori bezeroei erakusteko beharurik.

Eta lehen bezala, ondoren botilan borobilduko den sagardoa dastatzeko aukera da txotx denboraldiak ematen duena. Beste ikuspegi hori helduta, uzta berria probatu eta sagardoak upelean izango duen bilakaera gertatzeko aukera eskaintzen du aurretik dugar denboraldiak.

Egia dena da erakargarri turistiko direla gipuzko gure artean ditugun sagardotegiak, ondare bilakatu dira. Gipuzkoakoak bisitatzea Euskal Herriko txoko guztietatik iristen dira autobusak eta horrek asko aldatu du garai bateko lagun, bizilagun giroa.

Talaiatik

Hitz eta pitz

Sagardotegira joateko ohitura duzu?



Naroa Aldasoro

Gutxi, ez dut ohitura handirik. Alde batetik, gustatzen zait egia esan sagardotegietan sortzen den giroa. Koadrila lagunekin urtero ateratzen dut tartetxoa behin behintzat joateko. Prezio altuak aztera botatzen zaitu, baina urtean behin izanda merezi du. Beti-beti ez, baina gehienetan Hernanira joaten gara gero paranda txiki bat botatzeko.



Bosta

Izugarri gustatzen zait sagardotegietara joatea. Oilo-ipurdia jartzen zait! Urtean bizpahiru aldiz joaten naiz koadrilakoekin, Santuenaera, Santa Barbara, Hernanira... Zutik jatea maite dut, horixe bada bertako ohitura. Eta txotxean sortzen den giroa sekulakoa izaten da, edozein lekutako jendearekin harremanak egiteko primerakoa da. Emazteari ez zaio asko gustatzen, baina niri bai!



Jesus Mari Presa

Lehen askoz gehiago. Orain gutxi. Garai batean joaten ginen inguruko sagardotegietara palan aritzen ginen lagunak, baina orain ez. Gogoa dut Sodupeko koadrilako lagunak sagardotegi denboraldira ekarri nituela duela hainbat urte. Hura gozatu hartu zuten! Han ez dago ia batere ohiturarik eta hemen goiaz maiteminduta itzuli ziren. Kupel osoa edango zutela zioten! Ez zuten lortu.



Ramon Altuna

Ez gehiegi. Urtean pare bat aldiz bisitatzen ditugu sagardotegiak, baina ez naiz askotan joaten. Dena den, gustatzen zait sagardoa. Zubietza, Astigarraga, Hernani... leku askotako sagardotegietan izan naiz eta sortzen den giroa polita da. Hori bai, prezioak oso altuak dira eta penatsatzen dut batez ere gazte jendearentzat esfortzu ekonomiko handia eskaltzen duela.

Iruditan

Sagardo ohitura



Bautista Santa Cruzek Txartel-enea baserrian 27.000litro sagardo egiten zituzten 1950. urtean itxi arte.

Sagardoa ardoa baino merkeagoa zela eta kontsumitzen zen inguru honetan XX. mende hasieran. Sagardotegiak ere bazeuden, baina ez zuten jatetxe moduan funtzionatzen. Bertara lagun taldeek euren janaria eramaten zuten eta sagardoa edandakoaren arabera, ordaintzen zuten, 10zentimo basoa. 40zentimotan saltzen zen etxera eramateko litroa. 1920. urtean Lasarte-Oriako eremuan 9 sagardotegi zeuden. Horietako sei ziren ekozileak eta handienak 60.000 litro egiten zituen eta bikiak 3.000. Gerra zibilaren ondoren, soilik bi sagardotegirik jarraitzen zuten lanean.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GPKo Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Tiatun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legeko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakia: 7800

txinbarri

Eredakzioa:

Nerea Ezpigitze, Maider
Azumendi, Jon Altuna E.

txinbarri@txinbarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publizitatea@itakun.com

administrazioa@itakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,

Ane Labaka, Maiti Arri, Asier

Odriozola, Jose M. Hernandez,

Oihana Salazar, Pako Aizpirtate,

Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amador

TOPAKETAK

Bakea eta elkarbizitza

Topaketetan zaborren auzia eta ekonomia ere landuko dira

BAI plataformak antolatutako I. Topaketei hasiera eman zitzaion asteazkenean. Hainbat herritar gerturatu zen Villa Mirentxura Imanol Lizarralde eskaini behar zuten hitzaldia entzutea. Bere ikuspegiaren arabera, bizikidetzeta eta bakea bermatzeko behar diren puntuak jorratu zituen.



BAI topaketen lehen saiora herritar ugari hurbildu zen.

TXINTXARRI

Bakegintza eta bizikidetzari buruzko hitzaldi batekin hasi ziren I. BAI topaketak. "Behetik erakitako bizikidetzeta" mintzaldia eskaini zuen Imanol Lizarralde historialariak.

Aurretik Estixu Alkorta eta Natxo Izeta BAI plataformako kideek Topaketan hauen nondik-norakoak eta egitaraua azaldu zirkieten Villa Mirentxura hurbildu ziren herritarrei.

Bizikidetzeta

Imanol Lizarraldeek bakea erakitzeko bizikidetzeta egotea beharrezkoa dela azaldu zuen.

Herrian biolentzia urte askotan jasan izan dela eta memoria dagoela aipatu zuen.

Gainera, bere iritziz, nahiz eta ETak duela bi urte ekintza armatuak utzi, alde politikoaren ideologia eta jokatzeko era ez da aldatu. Eta horrek elkarbizitza arazoak sortu ditzakeela aipatu zuen.

Era honetara, bere ustez, elkarbizitza erakitzen lagunduko duten hainbat proposamen egin zituen.

Besteak beste, oinarritzko giza-eskubideak politikara edo ideologia baten gainetik dardela aipatu zuen. Hauek, eskubide pertsonalak eta pertsonaren bizia oinarri izan behar dutela azpimarratu zuen.

Beldurra dagoela onartu eta honen zergatia jakin arazi behar dela ere aipatu zuen. Izan ere, "beldurriaren memoria ere badago gure herrian".

Era berean, giza eskubideak alderdikeria egiteko erabilteza salatu zuen.

Mehatxua edo indarkeriazko ekintza egonez gero, salatu behar dela adierazi zuen.

Giza eskubiden alde eta biolentziaren aurka egin dute-nik harrotasuna izatea eskatu zuen. "Lotsa haiek izan behar dute biolentzia gaitzesten ez dutelako".

Azkenik, azken urteetan egon den garapena dela eta baikor agertzen dela adierazi zuen.

Imanol Lizarralderen azalpenen ostean, hitzaldia entzutea hurbildu ziren

herritarrek haien iritzia eman eta galderak egiteko txanda izan zuten.

Beste saioak

Topaketetako gainontzeko jarduerak otsailaren zehar egingo dira Villa Mirentxun. Astean zeharrek saioak 19:00etatik 21:00etara izango dira eta larunbatetakoak, berriz, 10:30-13:30 artean.

Bakegintza eta bizikidetzari dagokionez, Patxi Meabek "La salud democrática de la convivencia" hitzaldia eskainiko du otsailaren 6an eta Maribel Vaquerok, otsailaren 22an, Urrietako bizikidetzeta esperientzia aurkeztuko du.

Josemari Puldain, Natxo Izeta eta Carlos Ormazabal zaborren kudeaketari buruz herritarrek eta erakundeek duten ikuspedia azalduko dute. Otsailaren 15ean izango da saioa.

Eta azkenik, otsailaren 26an, enplegua oinarritzat hartuta adituei zuzendutako foro bat antolatu da. Hau ez da herritarrei irekia egongo.

IKASTAROA

Janari manipulatuzaile ikastaroa

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udaleren Sanitateko Departamentuarekin elkarlanean, ikastaro berri bat emango du, janari-manipulatuzaileen arrisku handikoa, ostalari-ko sektoreari zuzendua Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukia dituen. Ikastaroa urtarrilaren 28an emango da Anbulatorioko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoan.

Ondutegia 09:30etik 13:30era bitarteko izango da. Prezioari dagokionez, 45 euro pertsonako eta prezio berezia dago langabetuentzat 35euro. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, deitu OMIC 943361605 edo Elkolab. S. COOP. 943533303 telefonora.

BIYAK BAT

Ez ohiko Batzar Nagusia

Biyak Bat elkarteak bere bazkideei jakin arazten die, urtarillaren 25ean, larunbata, 18:00etatik aurrera ez ohiko Batzar Nagusia izango dela.

Honetan, idazkariaren ordezkoa bitlatzeaz gain, urte honetako hainbat gai eta ekintzak aztertuko eta bozkatuko dituzte.

Zuzendaritzako kideek deia egiten diete bazkide guztiei hurbiltzeko, "garrantzia handiko gaiak direlako".

IRAKURZALETASUNA

Irakurle-txokoa Euskaltegiko aretoan

Irakurle-txokoaren hurrengo saioa astearean, urtarrilak 21, 18:30etik aurrera, izango da kokaleku berrian, Udal Euskaltegiko hitzaldi aretoan. Hurbiltzen diren lagunek Alice Munro Nobel saridunaren "Zorion handiegia" aztertu dute.

Era berean, ekainera arteko saioetan landuko diren liburuen titulak aurreratuta dituzte irakurten joateko. Otsailak 18, Irati Jimenezen "Nora ez dakizun hori" landuko da, martxoaren 18an Eider Rodriguezen "Katu jendea", apirilaren 15ean Mari Luz Estebanen "Amaren herriotzak librea egin ninduen", maiatzaren 20an, Virginia Wolfen "Gela bat norberarena" eta ekainean Uxue Alberdi-ren "Euli-giro".

AMARAUN KLUBA

Maitasuna lantzen ipuinen bitartez

Amaraun klubaren barruan, ikasturte honetan ipuin-kontalari saio bereziak antolatu dituzte. Hauetan haurrek ipuina entzuteaz gain, sentimendua lantzen dituzte. Azaorean izan zen lehen saioan haserrea landu zuten. Orain, urtarrilaren 30ean, bigarren ipuin-kontaketa izango da eta honetan maitasuna izango da landuko dena.

3-4 urteko haurrei, 2010 eta 2009 urteetan jaiotakoekin hain zuzen ere zuzendutako saioa izango da, 18:00etatik 19:00ak bitarte, Amaraun ludotekan egingo dena.

Honetan, erbi handia eta erbi bikiaren istorioa ezagutuko dute "Ezetz asmatu zenbat maita zaitudan" liburari esker. Baina istorioaz gain, asmakizunak, errepikapenak, begiradak... labialdi izango dira haurrek maitasunaren sentimendua barneratzeko.

Konpostaje guneak martxan

Lasarte-Oriako Udalak etxeko hiri-hondakinaren sorrera gutxitzeko asmoz, proba modura, bi konpostaje gune jarri zituen herrian, Sasoe eta Atsolabar auzoetan, hain zuzen ere.

Konpostaje gune nahi zuten 20 familiek parte hartzen dute proiektu honetan egun.

Familia hauek urrian eman zuten izena proiektuan eta konpostagailuen erabilera ulertu eta ikasteko ordubeteko prestakuntza-saioa izan zuten Artelatz kooperatibako kideen eskutik. Azaorean kon-

postaje guneak ezin dira hain zuzen familiak.

Prozesu erraza

Nerea Sanchezek proiektuaren aurkezpenaren azaldu lege, erabilera erraza dute konpostaje guneek, "familiek etxean sortutako hondakin organikoak konpostagailuan botza eta prozesu naturalaren bidez, konposta bihurtuko da".

Prozesuaren jarraipena ere Artelatz kooperatibaren bitartez egiten du Udalak. Udaleko ordezkariek adierazi

dutenez, "oso ondo doan proiektu bat da eta gainera oso pedagogikoa".

Konpostaje gune gehiago

Era berean, Nerea Sanchezek aurkezpenaren azaldu modura, esperientzia honen emaitzen arabera, herriko beste puntu batzuetan konpostaje gune gehiago jartzeko aukera egon daiteke.

Udaleko ordezkariek aipatu dituztenak, Udal Gobernuak aurrekontuetan beste bi gune gehiago proposatuko ditu.



Sasoean, Adarra kalean kokatuta dagoen konpostagailua.



Landaberri-Garaikoetxea ikastolan txikiak gustura jo zuten danborrada.



Zumaburu-Sasoeta ikastetxeko txikiak Isla plazan eskaini zuten haien emanaldia.

Ederki astindu zituzten danborrak

San Sebastian eguna ospatu zuten ostiralean herriko ikastetxeetako haur eta gazteek

Gaur San Sebastian eguna dugu. Baina Lasarte-Oriako ikastetxeetan haur, gazte eta irakasleek ostiralean ospatu zuten Donostiako egun handia. Txuri-urdin koloreak izan ziren nagusi Landaberri, zein Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetan. Danbor-jole, sukaldari edo urketariak ikusi ahal izan ziren. Raimundo Sarriegiren doinuak, zein Lasarte-Oriako ereserkia edo Realairena ere jo zituzten trebetetasunez. Gurasoek, eta senideek haurren emanaldiak adi jarraitu zituzten, hamaika argazkia edo bideoak eginez.

TXINTXARRI

San Sebastian martxa, Tatiago, Polka, Iriyarena... Gaur doinu horiek guztiak Donostiako kaleetan barrena entzungo dira, San Sebastian eguna baita. Lasarte-Oriako ez da jai hau ospatzen, baina doinu hauek entzun ahal izan genituen ostiralean gure herriko kaleetatik.

Hiru eguneko aurrerape-narekin, Lasarte-Oriako ikastetxeek haien omenaldi txikia egin zioten San Sebastiani.

Baina Raimundo Sarriegiren doinu famatuek gain, Errealen ereserkia eta Lasarte-Oriako ereserkia ere entzun ahal izan ziren ikastetxeetako jolasleku edo Isla plazan.

Landaberri ikastola

Landaberri ikastolako bi erai-kinetan guraso ugari izan zen haurrei danbor jolez argaz-

kiak atera edo bideoa egin zietenak.

Eguraldia lagun Landaberri-Garaikoetxea ikastolako txikienek jolastokian eskaini zuten emanaldia.

Sukaldari txapela buruan eta mantala soinean, jolaslekura atera ziren.

Lehenengo doinuan urduritasuna nabari bazen ere, gustua hartu eta erritmoa ederki jarraitu zuten, irakasle, zein zortzi zuzendari txiki- ren zuzendaritzapean.

Landaberriko LH3-6ko gaztetxoek, berriz, desfillearekin hasi zuten haien jaialdia. Ikastolatik atera, futbol zelairuntz egin eta anfiteatrorra abiatu ziren gurasoen begiradapean.

Batzuk sukaldari, beraiek prestatutako txano dotoreekin eta besteak plastikozko poltsez egindako danbor-jole jantziak erakutsi zituzten. Banderadunak ere izan ziren,

hauek Landaberri ikastolako bandera, Donostiako bandera eta ikurrina zeramatzen.

Anfiteatro lepo bete zen haur eta gurasoekin. Guztiek Sarriegiren doinuez gozatu zuten.

Sasoeta-Zumaburu

Sasoeta-Zumaburu ikastetxean ere ederki ospatu zuten San Sebastian eguna.

Zumaburuko txikienek Isla plazan erakutsi zuten danborraren dute trebetasuna.

Irakasleen laguntzaz eta gurasoen begiradapean ikastetxe eta plaza arteko ibilbidea egin zuten guztiak dotore jantzita, batzuk sukaldariz, besteak urketariz.

Irakasle eta hiru zuzendari txiki- ren laguntzaz, txiki- edeki astindu zituzten danborrak.

Sasoetako eraikineko jolaslekuan ere, haur eta gaztetxoek ederki gozatu zuten danborradarekin.

Danbor-jole eta sukaldariz jantzitako gazte, zein Guraso elkarteko kideek doinuak ederki jo zituzten.

Tatiago doinu- n haurrek kupelaren hotsarena egin zuten danborraren aldean makilekin jotzen eta guraso elkarteko kideak esate bate- reako, dantzan ikusi ahal izan genituen hainbat doinutan.



Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko handienak ere dotore atera ziren jolaslekura.



Landaberriko anfiteatro lepo bete zen danbor-jole eta sukaldariz.

"Denen artean ekiteko garaia da"

"Gure Esku Dago" herriko taldea auzetako da ostiralean Villa Mirentxun

"Gure Esku Dago" Lasarte-Oriako lantaldea osatzen dute Gorka Lasa, Enara Ieregi, Oihana Beltran eta Maria Mungia. Ostiralean egingo dute taldearen aurkezpen ofiziala Villa Mirentxun 19:00etan eta herritarrek honetan parte hartzea animatzen dituzte. Dinamika zer den azaldu eta datozen hilabetetan herrian burutuko dituzten ekintzen berri emango dute. Hurrengo hitzordu garrantzitsua otsailaren 15ean egingo duten festa izango da.

Maidar AZURMENDI

Gure esku dago" erabakitzeo eskubidearen alde martxan dagoen dinamika da.

Azaroan Angel Oiarbidek ekimenaren sustatzaileetako bat honen berri eman zuen Villa Mirentxun. Bertan hainbat herritar animatu zituzten lan taldea osatzea eta horrela elkartu dira Gorka Lasa, Enara Ieregi, Oihana Beltran eta Maria Mungia. Eskualdean sortu diren beste taldeekin harremana dute eta Gipuzkoa mailako guztiekin bilerak hilabetero egiten dituzte Tolosan.

Taldeen labor azaldu du dinamika. "Gure Esku dago" mugimendu apolitiko da eta herritarren parte hartzean oinarritzen da. Horregatik honetan pentsaera politikoz guztietako herritarrek deitzen dituzte.

"Aldarrikatzen dugu eskubidea dugula gure etorkizuna herri gisa erabakitzeo, guri, herritarrei dagokigula erabakia hartzea".

Aldarrikapen horren irudikapena da aurtin dinamikan ekintza nagusia izango dena. Ekainaren 8an Durangotik Luñeagira giza katea egingo da.

666 lagun

123km. dira guztira eta "Lasarte-Oriak gonbidapena dauka bi kilometro osatzeko, Usurbilekin batera elkarbanatu beharreako dira eta guztira 666 lagun lotu behar ditugu".

Lasarte-Oriaren bi kilometroak giza katearen 89 eta 90 kilometroak dira eta Irueñatik 30 km-ra daude kokatuta. Egun horretarako autobusak antolatuko direla aurreratu du taldeak.

"Lan taldea arduratuko da egun horretarako autobusak eta beharrezkoak diren guztiak antolatzeaz baina eguna gerturatu ahala emango dugu horren inguruko informazioa".

Giza katea guztira 50.000 lagunekin osatuko da "baina kopuru hori minimoa da, erroka 100.000 pertsonen parte hartzea lortzea da".

Hortik gorako atxikimendua lortzea "handia litzateke, gu baionkorak gara zentzu horretan eta herritik, Usurbilekin batera osatu behar beharrezkoak diren 666 horiek baino gehiago animatzea".

Herrian ekintzak

Herrian lan talde "txikia baina langilea gara" martxan dira dagoeneko baina taldea irekia dela azaltzen dute eta "jendea laguntzeko prest baldin badago animatzen dugu taldearen parte izatera".

Dinamika eta bereziki ekaineko giza katea ezagutzea emateko, herrian hainbat ekintza antolatzea da taldearen ardura. Horrela lehenengo ostegunean egingako pintxo-potea berezia izan zen. "Herritarren atxikimendua lortzen hasteko lehen ekintza".

Pintxo-potea egin zen, trikitixa eta pandero doinuak eta Ane Labaka, Unai Muñoa, Zigor Iriondo eta Amaia Agirre bertolarienekin Okendo plaza-ziatik abiatuta.

Herritarrei gai jartzaile lana eskaini zitzaion eta gogotsu egin zuten. Bi euroren truke bertosa eta "Gure Esku dago" zapia izan zuten ordainean. Antolatzaileak pozik azaldu ziren lehenengo ekintzak izandako harrerarekin "otsailaren 15eko astearen horrelako beste pintxo-potea bat egitea pentsatzen ari gara. Jende asko geratu zen eskutako bertosa gabe denbora faltagatik".

Gainontzean taldearen aurkezpen ofiziala ostiralean, urtarrilak 24ean, 19:00etan Villa Mirentxun egingo da. "Herriko elkarte guztiak iritsiko zaien gonbidapena bertan egoteko eta hemendik, herritar guztiak animatzen ditugu honetara gerturatzeko".

Festa

Herriko taldearen ekintza nagusietako bat otsailaren 15ean egingo da.

"Gasteiztik dagoeneko dinamika eta giza katearen berri herriz herri emateko hiru furgonetak abiatu dira eta horietako bat Lasarte-Oriara



Gorka Lasa, Maria Mungia, Enara Ieregi eta Oihana Beltran dira Lasarte-Oriako lan taldea, kide berrian hartzeko prest daude.

aste horretan etorriko da".

Aitzakia horrek festa egingo da otsailaren 15ean. "Bideo bat grabatu nahi dugu herritarren parte hartzearekin eta jaia, jana, edana eta erromeria izango dira Okendo plazan".

Egun horretan ofizialki irekiko dira zerrendak giza katean parte hartu nahi dutenek izena emateko.

"Apuntatzen diren herritarrek txapa bat jasoko dute, horrek adieraziko die giza katean bete beharko duten posizioa. Herritarrei konpromisoa eskatzen zaie ekainaren 8an hutsik ez egiteko horregatik, norberaren lekua aldeaz aurretik ematearena" argitzen du Beltranek.

Bost euro ordainduko dira ere giza katearen egunean emango den kit-a eskuratzeko.

Apirilak 5

Apirilaren 5ean lehenengo zerrenda hauek itxiko dira eta "ordurako 50.000 lagunak izan beharko genituzke. Hori ikusita 100.000 pertsona biltzearen eronkari ekingo litzazioke".

Zerrendak herri guztietan zabalduko lirateke berri.

Taldeen lasarteoriarrak animatzen ditu antolatzen diren ekintzetan parte hartzea, bereziki giza katean. "Herria martxan jarri nahi dugu".

Informazio gehiago eskuratu edo zalantzak argitzeko, Facebook kontua zabaldu dute eta herritarrek bertara jo dezakete.

"Gure ustetan garaia iritsi da denak eskutik helduta aurrera egiteko".



Eskuiekin irudikatuta nahi izan zuten taldeekideek ekainaren 8ko giza katearen ekimena.



Labaka, Muñoa eta Agirre bertolarien aritu zen Zigor Iriondo ere pintxo-potean.

SASKIBALOA.

Hamarretik hamar, eta hurrengo fasera

Ostadarreko neskek 66-54 irabazi diote Añorgari, partida handia jokatuta

Sekulako denboraldia egiten ari dira Ostadarreko neska kadeteak. Ander Otaegi eta Itziar Bermudezek gidatuta, hamar neurketatik hamar irabazi dituzte Errendimenduko lehenengo fasean. Orain, denboraldiko bigarren faseari ekin-gio diote eta maila handiagoko taldeen aurka neurtu beharko dituzte indarrak.

TXINTXARRI

Norgehiagoka serioa jokatu zuten urdin-beltzek larunbat arratsaldean udal-kiroldegian. Defentsan sendo eta saskiari begira fin: "Añorgak zonan defenditu du eta arpobetxatu egin dugu hori lehen zatian hiru hiruko hortetan, min egin diegu alor hortetan", esan du Ander Otaegi prestatzaileak partida amaيتa.

Partiduaeren lehen erdian egindako lan ona markagailuan ere islatuta geratu zen. Zortzi puntuko aldearekin iritsi ziren atsedaldira Ostadarreko neskek.

"Bigarren zatian urtero batean 20 puntuoko errenta ere izan dugu. Haiek zonakako defentsa egiteari uztean, gu erosoago sentitu gara eta puntu asko sakiratu ditugu, ideiak argi genituen", adierazi du Otaegi.

Hortik aurrera, lortutako

errenta kudeatuta, Añorgari gehiegi hurbiltzen ez uztea izan dute xede Bermudez eta Otaegiren neskek.

Aipagarria Haizea del Olmok jokatutako partida puska, saskipean 28 puntu sartu zituen herritarrek.

Gainera, itxura ederra hartu zuten udal-kiroldegiko harmailek, jendetza bildu baitzen Ostadar eta Añorgaren arteko partida ikustera.

Menduko gosez

Nolabaiteko errebantxa kut-sua ere bazuen partidak. Iaz Gipuzkoako txapelketako finala bi talde hauek jokatu zuten, baina Añorgak irabazi zuten partida hura.

Asteburuaren mendekua hartu dute ordea Ostadarreko neskek. Añorgak ligan galdu dituen bi partidak Ostadarren aurka jokatutakoak izan dira.

Dena den, izatez, partida zaila zen. Saiklapeneko lehen-goia eta bigarrena aurrez



Partida ederra jokatu zuten Ostadarreko neskek. Añorgaren zonakako defentsak ezin izan zuten etxekoien eraso eta.

aurre aritu baitziren. Baina 66-54ko azken emaitzak argi erakusten du ordea gaur-gaurko etxekoak añorgarrak baino hobekak direla.

Garaipen honek goiko-fasean aritzeko txartela eman die, probintziako talderik onenen aurka jokatzeko txartela alegia: "Ea bertan finkatzen garen, talde txukuna osatu dugu plantilla motza izan arren, baina lehiakorrek gara", esan du Otaegi.

Izan ere, zazpi jokalaria

soilik edukita lortu dutena balentriatatzat defini daiteke.

Orain hasiko duten fase berri honetan erabakiko da zein talde mantenduko diren 2. mailan eta zein talde igoko diren 1. mailara. Beraz, orain arteko bidea jarraitzea komeni.

Ostadarreko neskek ez diote jgoeraren aukerari aterik itxi nahi eta hurrengo urtean Gipuzkoako talde onenak Lasarte-Oriari ikusi ahal izateko egingo dute borroka. Lana, horixe da sekretua.

Jubenilek atsedena

Hurrengo asteburuan, berriz, jubenilek jokatuko dute ligako azken jardunaldia.

Aste honetan deskatsatu ostean, azken saikatuaren aurka, SUMM aldapetaren aurka lehiatuko dira. Orain-guz, hirugarren postuan daude urdin-beltzak.

Bestalde, Landaberri kadeteek partehartzeko lehen fasea amaitu dute eta ez dute aukerarik izango aurrera egiteko.

ATLETISMOA.

Vazquez Euskal Herriko txapeldun

Euskal Herriko Distantzia Luzeko Txapelketa urtarrilak 15, igandean, ospatu zen Getxon. Buruntzaldea IKT-ko Jone Vazquez 2000 m. libre proban izan zen lehian eta infantil mailako urrezko domina eskuratu zuen.

"Iaz egin zuten proba hau Jonek lehendabizikoz eta bigarren aldi honetan ere bikain aritu zen," adierazi digu Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Jonek urrezko domina eskuratu zuen 27:09'99 markarekin. Era honetera, aurreko urteko marka 24 segundotan hobetu eta gainera, pasean bere 1500eko marka onena berdintzea ere lortu zuen, "iaz baino forma egoera hobean dagoela erakutsiz".

Entrenatzaileak aipatu digunez, "ranking-a aterata



Iñigo Ibarburu Euskadiko selekzioak deitua izan da.

BURUNTZALDEA IKT

itxaron beharko dugu, Distantzia Luzeko Espainiako Txapelketan lehiatzeko aukerarik izango ote duen jakiteko".

Euskadiko selekzioa

Bestalde, Buruntzaldea IKT-ko Iñigo Ibarburu Komunitate arteko Espainiako Txapelketarako Euskadiko Selektzioarekin lehiatzeko aukeratu izan da. Txapelketa otsailaren 1

eta 2an ospatuko da Madril-en.

Euskal Federazioak Buruntzaldea IKT-ri aurreratu duenez, Iñigok bakarkako hiru probatan hartuko du parte: 100 eta 200m. libre proban eta 100 m. tximeleta proban. Horietaz gain, "litekeena da 4x100 libre, 4x200 libre eta 4x100 estiloak erreleboetan ere parte hartzea".

Rodriguezen errekorra

LOKEko atletismo saileko gatz-teak junior, jubenil eta kadete mailako Gipuzkoako txapelketan lehiatu ziren lehenengo astean. Lan ederra egin zuten urrezko bost domina, zilareko bi eta bronzetzeko beste bost eskuratu. Gainera, Gipuzkoako 400 m. lasterketako errekorra hautsi zuten Itoitz Rodriguezek eta Espainiako txapelketetarako lau marka gutxieneko ere egin zituzten.

LOKEko entrenatzaileak oso pozik agertu da gatzetek egindako lanarekin eta gatzetek markak hobetzen jarraitu dezaketela aipatu digu.

Itoitz Rodriguezek 400 m. lasterketako garailea izan zen 49.69 marka puska eginez. Denbora honekin jubenil eta junior mailako Gipuzkoako errekorra hautsi zuen.

"Meritu handiko marka da, Josean Gay atleta handiaren marka jaistea oso garrantzitsua

da" aipatu du Oskar Goikoetxea entrenatzaileak.

Yeray Veronizek 60 m. lasterketan eskuratu zuen urrea eta 200 m.-etan brontzea. Ion Ander Bruñok jauzi hirukoitzean, Mairder Rekondok pisu jaurtiketa proban eta Eneitz Bustok altueran lortu zituzten beste hiru tituluak.

Hauetat gain, Asier Olmos kadeteak zilareko domina lortu zuen 600 m. lasterketan eta jauzi hirukoitzean hirugarren izan zen; Maria Eugi 200 m. proban bigarrena izan zen eta hirugarren 400 m. lasterketan; Oihana Igariz, hirugarren izan zen pisu jaurtiketan eta Idioia Olasagastik 200 m. lasterketako bronzetzeko domina eskuratzeko gain, Espainiako txapelketarako gutxieneko marka ere egin zuen.

Eta txapelketatik kanpo, Gaizka Ormazabal promesak ere 200 m. lasterketan Espainiako txapelketarako txartela lortu zuen.

— Agenda —

Ostirala 24, 22:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxean



Lennon jarraituz

Okendo Zinema taldearen denboraldi berriko saioa, "Vivir es fácil con los ojos cerrados" filma ikusi ahalako da. 1966an, John Lennon krisialdi existentsialista dago, Beatlesek inbini betiko amaiteza erabaki du eta aktore izan nahi du. Hala, Almeriara joango da Richard Lester-en agindupean gerraren kontrako film bat grabatzera: *Gerra nola irabazi nuen*. Antonio, Belenekin eta Juanjorekin topo egiten du Lennon ezagutzera doanean. Lennon askatasun-ikur bat izango da hiruzentzat, jomuga bat. Sarrera, leihatilan 4,70 euro; internet bidez, 4,30 euro. Gaztelaniaz.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 26, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Frozen. El Reino del Hielo" filma izango da.

Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,20 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 26, 19:30ean

Helduentzako zinea, "Vivir es fácil con los ojos cerrados" filma eskainiko da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,40 euro. Gaztelaniaz.



Aurkezpena

VILLA MIRENTXU

Ostirala 24, 19:00etan

Lasarte-Oriako Gure Esku Dago taldearen aurkezpena egingo da.

Musika

ZULO ARETOA

Larunbata 25,

21:30ean

Metal jaialdia izango da Unbreath eta herriko Gabezia taldeen eskutik. Sarrera, 4 euro.



Irakurle-Txokoa

UDAL EUSKALTEGIKO ARETOA

Asteartea 21, 18:30ean

Hilabete onerako saioan, Alice Munro Nobel saridunaren "Zorion handiegia" aztertuko dute Uxue Alberdiren laguntzaz.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Urtarrila bukaera arte

Paco Altuna herritarrek Lasarte-Oriako hainbat eraikin zaharretako maketak erakusgai jarri ditu.

Astigarraga

Aurkezpena

AEK EUSKALTEGIA

Asteartea 21, 19:00etan

Lur Denok kooperatibaren aurkezpena egingo da. Honetan, produktuen banaketari buruzko azalpenak ere eskainiko dira.

Antzerkia

KULTUR-ETXEAN

Igandea 26, 20:00etan

Borobil teatroa "On egin" lana eskainiko du. Sarrera, 2,5 euro.

Hernani

Literatur solasaldia

UDAL LIBURUTEGIA

Asteartea 21, 19:30ean

Arantza Urretabizkaiaeren "3 Mariak" liburua aztertuko dute.

Erakusketa

BITERI KULTUR-ETXEA

Urtarrilaren 21era arte

"Condor legioak eragindako Gernikaren suntsipena" erakusketa ikusgai. Lau Haizetara Gogoan-ek antolatua.

Usurbil

Kantu-jirra

MIKEL LABOA PLAZA

Larunbata 25, 20:00etan

Kantu-jirra ederra izango da Usurbilgo kaleetatik barrena.

— Herritarren txokoa —

Txuri urdin eta babarrun jana

Zabaleta Auzolanean lagunek Txuri urdineria iteera antolatu dute urtarrilaren 25erako, larunbata. Honetan parte hartu nahi duten ume eta gazteok auzoko plazan egon beharko dira goizeko 10:00etan.

Ondoren, babarrun jana antolatu dute Xirimiri elkarteak. Honetan parte hartzeko aurrez izena eman beharko da auzoko dendan eta azken eguna urtarrilak 23 osteguna izango da. Zabaletak bizilagunek bi ekintzetan parte hartzea deitzen dituzte bereziki auzotarrak.

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da urtarrilaren 24an, ostirala, arratsaldeko 17:00etan.

Odol-ateratzekak

Odol ateratzekak egingo dituzte Osasun Zentroan urtarrilaren 27an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odolordekazina da eta!

Marrakzi eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinazartzen du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezke klase orduetan.

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian marxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteak lokalean banatzen dira barakzi eta frutak, garaien garaiak eta ekologikoa.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atek zabalki dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidetan.

— Sarean —

Deklinabideak zure mugikorrean

Nor edo nork, nor edo nori, ergatiboa, mugagabea, izen bereziak, noraino-noiz arte... euskara ikasten ari zarela eta hitzak deklinatzeko arazoak dituzula. Orain modu erosoan zure mugikorrean ikasteko aukera duzu *Deklinabidea* aplikazioaren bitartez.

Gesmae Informatikak izeneko enpresak kaleratu berri du aplikazioa.

Honetan ariketa eta taulen bidez euskal deklinabideko kasu guztiak landu ahal dira.

Alde teorikoa zein praktikoa jorratzen ditu aplikazioak. Baina teoria kontsultatzeaz gain, ikasleak irriak egin eta aztertu ahal izango du zer kasu indartu beharko lukeen bere ikas-prozesua hobe dezan.

Apiatu legez, baliabide ona izan daiteke euskara ikasten ari direnentzat. Gainera, Interneteko sarbide gabe erabili daitezke. Beraz, euskara edonon eta edonon izan daitezke jarraitu ahal da.

Aplikazioa ordenagailuan nahiz Android eta iPhone sakelako telefonotan doan eskuratu daitezke. www.deklinabideapp.net orrialdean berbis bakoitzerako estekak aurki daitezke.

Eta Gesmae Informatikak baditu euskara lantzeko eta jolasteko beste aplikazio batzuk ere, *Aditzapp* eta *Hitzekin jolastuz*. Beraz, euskara ikasteko hainbat aukera daude.



Zuen oharrak jarri, kekak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

Xabier Iglesias Equoko kide eta koordinatzailea

"Talde heterogeneoa da Equo"

Orain arte, ez du inolako ibilbide politikorik eduki Xabier Iglesias donostiarrak. Gurean bizi da. Profesionalki irakaslea da, Batxillerrean Mundu garaikiderako zientzia eta Biologia irakasten ditu donostiako Santa Teresa ikastetxean. Lehenengo Biologia ikasi zuen, itsas zientziak eta politikak gero. Bere pasioetako bat da politika. Ikasle zela ideologia berriak arakaten hasi zen. Ekologia politikoa deskubritu zuen arte.

Jon ALTUNA EGITEGI

2011n agertu zen marka. Equoren Euskadiko taldeak lehen batzarria izako urrian egin zuen. Talde "heterogeneoa" da Equo Iglesiasen hitzetan. Lasarte-Orian proiektu berri bat abiatu nahian dabilzala esan du.

Zein alorretan egiten du lan Equok?

Jende gehiena mugimendu sozialietatik dator. Ekologia politikoa ideologia berria da, 60ko hamarkadan definitu zena.

Hiru ardatz nagusi daukagu: enplegu berdea eta ekonomia jasangarria batek, ingurumena eta garapen jasangarria bestetik, eta demokrazia parte-hartzailea azkenik.

Ardatz horien inguruan beste alor batzuk ere defendatzen ditugu: desahazkundera, animalien eskubideen defentsa, ekofeminismoa...

Lasarte-Orian ze gabezia ikusten dituzue? Zein dira zuen eronkak epe laburre-ra?

Udalak gauza batzuk ondo egiten ditu, hiru alderdien arteko elkarlana lan konplexua den arren, hainbat proiektu aurrera ateratu dituzela ikusi dugu. Herrian nahiko arrakasta dutela dirudi.

Puntu beltza lanarena da. Udaletxeak dio ez duela konpetentzia zuzenik horretan,

baina posible da gauzak egitea. Guk aurkeztu genuen erkidego mailako programan 80.000 lanpostu sortzen zituen ikerketa bat argitaratu atera genuen. Nola? ekonomia berdearen bitartez: energia berriztagarriak, garraio jasangarria, eraikuntza zaharren birmoldaketan...

Herrian bertan enpresen "negutegi" bat sortzea proposatzen dugu. Lokalak egon badaude eta guztientzat proiektu berriak eta berriztailak ateratzea ideia ona dela uste dugu, *co-working* moduko bat. Nekazaritzaren alorrean pausu bat gehiago ematea ere ez legoke gaizki.

Oso ondo dago parte-hartzea bultzatzea. Equok badu horretan esperientzia.

Erraustegia ez da egingo. Nola baloratzen duzue erabaki hori?

Erraustegia gelditzea sekulako berri ona da. Ez da bakarrik alderdi politikoki jakin baten lorpena. Jende guztiaren lorpena da. Gizartearena: Pena bakarra beste alderdi batzuek bere garaiari hartutako konpromizeengatik ordaindu beharreko dirutza da.

Atez atekoaren alde dago beraz Equo?

Informazio falta izugarria dagoela uste dugu. Nahiz eta ez gauden erraustegiaren alde, atez atekoa ere ez da bidea.

Bidea integrala da. Zabo-

rraren osotasunetik, etxetean sortutakoa %10 bakarrik da, industriak sortzen du zabor gehien.

Kontsumo aldetik ere hausnarketa egin beharra dago. Zergatik erosi behar ditut magdalena batzuk bi aldiz forratuta? Guk erabiltzen ditugu, baina ez da "gure" zaborra.

Arazo handiena materia organikoarekin ikusten dugu. Konpostatu guneak herrian jarritzea adibidez primeran iruditzen zaigu.

Usurbil esaterako oso eredu ona da. Alderdi guztiek parte-hartu zuten eztabaidan. Bestalde, Bergarakoak edo Legazpiakoak arazo handiak ematen ditu. Betikoa, eztabida dago, herriari bota eta honekin zaude edo beste harenkin zaude.

Uste dugu eztabaida ez dela 5 edukintzen sistema edo atez atekoa. Tartean badaude alternatibak. Estarok, erretorna sistema oso ona iruditzen zaigu. Aspal-dian egiten genuen bezala, kristal botila bat erosi, bukatzen itzuli eta bultzatzen dirua jaso. Pentsa Gipuzkoan sagardo botilekin zenbat berziklatuko genukeen.

Erabakitzeo eskubidearen alde dago Equo?

Bai. Noski baietz, autodeterminazioa eskubide bat da guztientzat. Baina ekologia politikotik ez dugu ulertzen estatu-nazio sistema edo konbo hau. Europearrak gara. Beste Europa bat nahi dugu. Beraz, erabakitzeo eskubidea ez dugu ulertzen, baina onartzen dugu.

Ideologia berria da gurea. Eskuina, ezkerrea, abertzaleatza... Denak XVIII. mende-koak dira.



Xabier Iglesiasek Equo Euskadiren I. Batzarrean parte-hartu zuen.

EQUO

Tartalariak, desobediencia zibila, Herri Harresia... Nola ikusten dituzue ekimen bakesko hauek? Bidea egiten ari direla dirudi.

Konpartitzen degu protesta mota hori. Sinisten dugu horretan. Gizarte gaiek eraldatzeko balio dutela uste dugu, etxegabetzeen kasuan esaterako.

Europar indartsu ageri dira alderdi berdeak. Estatu mailan apal samar.

Tradizio eta ibilbide falta argia erakusten du horrek. Gure demokraziak zenbat urte dituen eta nolako transizioa izan genuen ere kontuan hartu behar da. Informazio falta izugarria dago.

Krisi ekonomoki, ekologiko, politiko batean bizi gara irakurri dituzun afixaren batean. Planteamendu ezkorra da.

Bada. Ezkorrak, baina lanean jarraitzen dugu. Azken finean sinisten dugu egiten dugun horretan.

Gainera, gure lan egiteko modua berezia da. Ez dugu mailegurik eskatzen. Hauteskunde kanpaina guztia internet bidezko mikrodonazioen bidez finantzatzen dugu. Guztira 25.000 euro gatastua genituen autonomikoetarako.

la-ia Eusko Legebiltzarrean muturra sartu zenuten hauteskunde autonomikoetan... 700 bozka bakarrik falta izan zitzaizkigun Araban ordezkariora lortzeko. Pena izan zen.

Gure programak 400 bat orri ditu, eztabaida bidez osatua, dena interneten dago.

Noiz izango du Equok hautagaizta zerrenda Lasarte-Orian? Aurkezteko asmoa badago. Aurretik ordea, ikusi behar Euskadi mailan zenbat jende daukagun. Errekurtsok nola eta non gatastzea garrantziti-

sua da guretzat.

Ideia badago. Udal-asan-blada egitea gustatzea gustutuko litzaidake. Osatzeko bost kide behar ditugu. Dagoeneko hamar bat edo izango gara. Osatzeko-deialdi bat egiteko asmoa daukagu. Baina oraindik ez dakigu noiz.

Txakur kaken ordenantzak ere saltsa eragin du.

Arazo bat badago txakurrekin. Nik txakurra daukat eta ezin dut edozein lekutan solte utzi. Auzotarrak esaten dute arazoa dutela, badago eta erreala da. Udaletxeak normatiba eta debekua jarri du horren aurrean. Tximistarreta, froilan Elsepe parkean eta Udal atzeko parkean debekaturik dago txakurrekin ibiltzea. Baina gure ustez hori ez da bidea.

Txakurkizakotako parke bat jarzea proposatzen dugu, itxia, kontrolatua egongo dena. Guk mantentzeko modukoa, erabiltzaileen kontrolarekin. Txikiekira dirudi, baina egunerokoan traba da. Konponbideren bat bilatu behar diogu. Normatiba aldatu dute eta atal oso interesgarriak ditu, animalien tratu txarren inguruan esaterako aurrerapausoak eman dira, baina kaken errealtatea da.

Kezkatzen al zaitu zerbait bereziki?

Badirudi txoriez eta zuhaitzetaz soilik arduratzen garela, baina ez da hori bakarrik. Komunikabideek soilik halako prentsa oharrak argitaratzen dizkigutela daukagu fama hori.

Gure programak 400 bat orri ditu, eztabaida bidez osatua, dena interneten dago.

Lasarte-Orian gipuzkoala maila dagoen langabezia-tasa altuenetakoa edukita, zenbat horretan herri mailan zer edo zer egitea gustatuko litzaidake.



Xabier Iglesias (eskuinean) Equoko hainbat kideekin batera Kontxako hondartzan. EQUO